

Santi Leone

## Gazteluak

**T**urista izatea lotsagarria da. Edo lotsagarri sentitzen dugu, eta dosi txikietan baizik ez dugu turista izatea onartzen. Egiazko turistak, turista osoak, ondokoak izaten dira, bertzeak, itxuraz gure antzekoak izan baina barnean (guk badakigu) gu ez bezalakoak direnak: halako tokitara joan ginen oporretan, baina turistiko-egia iduritu zitzaigun; edo halako museotan ez genuen sartu nahi izan, turistaz mukuru zegoelako (hondar esaldian, irakurle maitea, nazka puntu batekin ahoska ezazu turista hitza).

Turismoa faltsukeria hutsa da, fikzio hutsala, eta, horregatik, kilikak eragiten dizkigu pentsatzeak eskuar dugula egiazko esperientzia zirraragarriren bat. Hoteletan gotortuta, alde aurretik prestaturiko ibilbideetan katigaturik, zapaltzen dituen tokietako egiazko biziak ihes egiten dio turistari. Izan ere, bidaietatik, turista izatetik gelditu eta halako benetakotasuna (esperientzia *keitsch* hori) bizi izan genueneko izaten dugu oroitzapen kuttunena: bakarrik pasieran ibili eta (demagun) Erromako auzo batean jendea mandatuak egiten ikusiz hotzikara sentitu eta bidaiariaren mozorroa jantzi uste izan genueneko.

Turismoa ahanzturarako gonbitea ere bada. Gida turistikoetan, historia edertu eta dotoretu egiten da, gatazkak samurtu eta ertzak leundu. Bisitariari informazioa eman behar baitzaio, baina haren oporrak mikaztu gabe: ahaztu, beraz, historiako etsaigoak, atzendu iraganeko gerlak eta gaurko desadostasunak. Ongi pasatzera etorri zara, ez politika ikastaro bat egitera.

Fiturren, Yolanda Barcinak gazteluen ibilbidea aurkeztu berri du, kanpotarrak Nafarroara erakarri nahian edo. Adierazi zuenez, aurtengo aukera probestu behar dugu erakusteko gure historiaz harro



JOSU SANTESTEBAN

gaudela. Izanen da ibilbide horren kontura eskandalizatuko denik; ni, ordea, nago gazteluen ekimen horrek islatuko duela hobekien Nafarroako gobernuaren historiaren gainean duten ikuspuntua.

Imajina dezagun: hiru dataren bidez (1212, 1512, 2012), narrazio historiko zirritu gabea eskainiko zaio bisitariari: lehen hartan, nafarrek gainerako espainolekin batera birkonkistan funtsezkoa izanen zen garaipen batean parte hartu zuten; bigarrenean, Nafarroak azkenean bat egin zuen Espainiarekin; aurtengo honetan, mende luzeetako espainiartasun hori ospatzeko tenorea ailegatu da. Narrazio perfektua, beraz. Eta, turismoaren kanonek eskatzen duten bezala, ahantziak geldituko dira barne gatazkak, isilaraziak desadostasunak, baztertuak ikuspuntu alternatiboak.

Antola lezaketan kongresu bakar batek ere ez luke hain garbi adieraziko UPSNko agintarien ikuspegi historikoa: iragana erraz irensteko goxoki bihurtu beharra dago, denbora pasa etorriko diren kontsumo azkarrerako.

Izanen da naski kontrabertsioa aurkeztuko duenik, turista izaerari uko egiten dioten horiek bezala bertzelako auzoetara egiaren bila abiatuko denik. Nik, ordea, aski nuke baten batek, bidaiariaren benetako esperientzia (ezinezko) horren gibeletik ibili beharrean, aurkeztuko diguten bertsio ofizial hori hartu eta piezaz pieza deseginen balu. Ez hainbertze bertsio horren kopia negatiboa osatzeko eta bertze kontaktuzun josturarik gabea eskaintzeko, baizik eta narrazio (turistarena izan ala bidaiariarena izan) perfektu guztien izaera tranpatia erakusteko. Gure kontakizuna izan dadila memoriaduna eta akastuna, zuloz betea, etengabe eztabaidatua. ■

Antola lezaketan kongresu bakar batek  
ere ez luke hain garbi adieraziko UPSNko  
agintarien ikuspegi historikoa: iragana erraz  
irensteko goxoki bihurtu beharra dago,  
denbora pasa etorriko diren  
kontsumo azkarrerako

